

CANTIGA**IZPIRITUALAC,**

*Lehen eçagutuei hanitçac iratchitkiac, artha eta
ohortçapenekin cantatuz, Jaincoa eta gure sal-
bamendua ganaco orhoitçapenean haguitz la-
gunduco gaituztenac.*

Psalmite Domino..... quoniam rex omnis
terræ Deus, psalmite sapienter.

*Canta çaçue Jaunaren ohoretan... bainan
ceren den mundu guciaren erreguea, canta-
çaçue debocionerekin.*



SALTCEN DA BAYONAN,

CLUZEAU, liburu eta paper marchantaren baithan,
Cilharguin carrican, 4 lumeroan.

1844.

ANNALS

OF THE

ROYAL SOCIETY OF LONDON

FOR THE YEAR 1864

AND THE PROCEEDINGS



AND THE

PROCEEDINGS OF THE

CANTICA

IZPIRITUALAC.

MUNDUARI ADIOS.

Aire hunen gainean : *Hélas! quelle douleur.*

1.

HELAS!
Cer hari naiz
Ni certan naiz
Mundu triste huntan.
Helas!
Cer hari naiz
Ni certan naiz
Nola bici naiz;
Hartua
Haren sareetan
Herstua
Haren gatheetan.
Helas!
Heriora,
Jaincoa-gana;
Ni nola noha?

2.

Lurra
Certaz naucac?
Hic placerac
Darotzac hitzeman.
Lurra
Certaz naucac?
Hic placerac
Aguindu dauztac.
Ordean
Bethi gueçurretan,
Orotan
Ni haut nic atceman.
Lurra
Tromperian
Bekhatuan
Certaz naucayan?

3.

Bainan
Norena da
Oi! hobena
Ahanzten baçaitut.
Bainan
Norena da
Oi! hobena
Ni ceihartcea?
Çure-obrac
Beguietan ditut
Hoin clarac
Nola-ahanzten ditut.
Bainan
Ah, Cerua!
Bai Jaincoa,
Ni naiz galdua.

4.

Çure
Aguintçetan
Erranetan
Çu çuçen aurkhiten.
Çure
Aguintçetan
Erranetan
Bethi batean;
Mundua
Bethi gueçurrean
Gogoa
Bethi escassian;
Çure
Bai eguinac,
Bai erranac,
Ene arguiac.

5.

Bethi
Herioa
Bai hobia
Jauna bistan ditut.

Bethi

Herioa
Bai hobia
Bethi-idekia;
Horier
Beguiac hertsitut
Horier
Gorraren eguin dut.
Bethi
Oi, çoroa!
Oi Jaincoa!
Ni norat noha?

6.

Guero
Loria bat
Oi, goço bat
(Hel nadila hara)!
Edo
Ifernu bat
Erretce bat
Seculacotçat,
Munduaç
Ah! sura narama
Jaincoaç
Bere loriara:
Guero
Ah! mundua
Ene arima
Ni nora noha?

7.

Hemen
Mundutican
Ez dut içan
Bethico aguintçaric;
Hemen
Mundutican
Ez dut içan
Moment batean:
Bethicotz
Iraunen duenic

Nihongotz
Ez da çutan baicic.
Hemen
Jauna, hula
Cere narama
Oro gaitcera?

8.

Errac
Ifernuan,
Tormentetan,
Hagoen tritea,
Errac
Ifernuan,
Tormentetan,
Haicena sutan :
Erraguc
Cerc hauen hortara,
Eta guc
Hirriscu duguna :
Errac
Nola bada,
Haicen horra,
Çori hortara?

9.

Helas !
Erranen dut,
Bai aithor dut,
Çorigaitça cer den !
Helas !
Erranen dut
Bai aithor dut
Nere falta dut ;
Munduan
Ceren lakhet nuen.
Cerulean
Gosturic ez nuen
Helas !
Possible da,
Bai çoroa !
Huna galdua !

10.

Helas !
Cer çorigaitz,
Cer jassan gaitz,
Hartceco gogoan :
Helas !
Cer çorigaitz,
Cer jassan gaitz,
Gaitz guciën gaitz ;
Ondicotz
Su lamén erdian
Bethicotz
Erre Beharrian.
Helas !
Ez orhoitcen,
Ez phentsatcen ;
Oi, ni cer naicen !

11.

Jauna,
Aithor dautçut,
Mereci dut,
Ah ! puni naçaçun,
Jauna !
Aithor dautçut ;
Mereci dut,
Hutz bera eguin dut
Eskerrac
Ceren utci nauçun
Handiac
Oi, galdu ez nauçun :
Jauna
Hitz darotçut
Cinez dautçut
Damu handi dut.

12.

Lurra,
Axeguinaç,
Bai placeraç,

Ditiat hastandu,
Lurra,
Axeguinac,
Bai placerac,
Heurey eskeintçac.
Cerura
Nahi diat heldu,

Bidea
Hartaracotz hartu,
Lurra,
Gurutcea,
Bai nekea,
Diat Gostua.

PREDICU ONDOAN..

Aire hunen gainean : *Mon Doux Jésus.*

1

JESUS, ona,
Noizbeit çure oinetan,
Gure hutsez gaude ahalketan
O corrigaitz handiena!
Arbuyatu çaitugu,
Jesus ona.

2.

Aita ona,
Othoi, hel çazkigu :

Dugu, belas! mereci gaztigu;
Bainan çure bihotz ona
Ah! urricál bekigu,
Aita ona.

3.

Seculacotz
Cinki hitz dauçugu,
Bekhatuac utcico ditugu
Çure legue Sainduracotz
Dire gure botuac,
Seculacotz.

HAMALAU ESTACIONETACO

GURUTCE SAINDUARI

HAMABORTS PHERTSU.

Aire *Itçautcea.*

1.

GURUTCEAREN bidea
Duguneguin Cristau maiteac,

Salbamenduco bidea
Ideki daucu Gurutceac.
Gurutcea beraz belhi
Deçagun lauda goraki.

2.

Bethire laudorioac
Bitu gurutceac gu ganic,
Baicaitu Jainco-Semeac
Erossi Gureţat han hilic.
Gurutcea beraz.....

3.

Aldare haren gainean
Offritu da gure bictima,
Bai Jesusen odolean
Han garbitu gure arima.
Gurutcea beraz.....

4.

Gurutceari itcatua,
Jesus maiteac gure gatic,
Garaitu du ifernua,
Bicia emanic gogolic.
Gurutcea beraz.....

5.

Arbola baten fruituaz
Helas! guciac guinen galdu.
Hunec ecarri daucunaz
Oro, nor bagare, salbatu.
Gurutcea beraz.....

6.

Ceruco çucen guciac
Galduac guinituen, belas!
Horaco bide guciac
Ideki çaizeu Gurutceaz.
Gurutcea beraz.....

7.

Ilhumberic lodienac
Orotaric guintuen harfu;
Iguzkiric ederrenac
Oro gurutcelic arguitu.
Gurutcea beraz.....

8.

Khelderra beçala belztu
Guinituen gu bekhatnac;
Bainan ossoki churitu
Gurutcean ichuri odolac.
Gurutcea beraz.....

9.

Çor ecin pagatuzcoa
Jaincoari guinioena
Gurutcean pagatua
Ican da çutaz, Jesus ona.
Gurutcea beraz. ...

10.

Çor hura ecin pagatuz
Behar nintcen erre ondicotz,
Jesusec han satisfatuz,
Eguin nau dohatsu bethicotz
Gurutcea beraz.....

11.

O Gurutce Sacratua!
Nere esparantça da çutan,
Çutaz erresketatua
Çerennaicenmunduhunetan.
Gurutcea beraz.....

12.

O! Jesusen bihotz kharsu
Gureţat guciz idekia!
Gurutcean guciz dugu
Ikhusten oi! çure gaindia.
Gurutcea beraz.....

13.

Cer deiteke beraz, Jauna;
Ah! çuc odolstatu ondoan,
Gurutcea bada emana
Gurutcea gogoetariccanpoan!
Gurutcea beraz.....

Gurutcea laudalcean
 Ez gare mintco haren çuraz,
 Jesus dugu bihotcean,
 Guruçat han hil den ariaz.
 Gurutcea beraz.....

O bandera Sacralua,
 Çu çaituguno aitcinean,
 Non baiditake gudua
 Bethi gaitezke bitorian.
 Gurutcea beraz bethi
 Deçagun lauda goraki.

MUNDUCO GAUCEN

FUNTS-GABETASUNA.

Aire hunen gainean : *Tout n'est que vanité.*

1.

Ez da mundu huntan',
 Ez hunen aguintcetan
 Behinere aurkbitcen
 Çorion falsoric baicen :
 Bethi da gueçurti
 Atcematen,
 Halere bethi
 Edireten
 Ditu guïçonac,
 Fidatu nahi çaiçonac.

2.

Lore eta liliac
 Nola tu iguzkiac
 Gois-âldean çabaltcen
 Arratz berean mudalcen',
 Hala da guïçona
 Gambiatcen,
 Haren adina
 Da suntsitcen :
 Jayo deneco
 Han da arrasta hiltceco.

3.

Mundutar arinec,
 Ez gaste libertinec,
 Ez darotet aguintcen
 Atseguin goçoric baicen ;
 Bainan pulumpatu
 Bainaiz hetan,
 Ez dut aurkhitu
 Gucietan
 Deus funtsezcoric ;
 Deus, atsecabez bertecric.

4.

Hil behar guïçonac
 Alfer tu ontasunac,
 Diru nekhez bilduac,
 Urre eta cilhar multçuac
 Liteken nihoren
 Behar gabe,
 Mundu beraren
 Balitz jabe,
 Hil eta çayo
 Gathabut bat gueldituco.

5.

Guçon aiphatuac,
Handi ohoratuac,
Çuen titulu gorec,
Ez eta çuen ohorec,
Ez dute hiltcelic
Beguirateen,
Nehor hobitic
Guibelatcen,
Hari itcultceco,
Handi sortcea ez da asco.

6.

Gaur dohatxu dena;
Urrea dariona,
Inguratua pobrez,
Haren amoina beharrez,
Biharcotz daiteke
Eroria,
Baieta eske
Ethorria,
Bertcen athera
Sobra cembeit galdetcerat.

7.

Atço gaichtaguina
Icusi dut igana
Cedro berez gorago
Hurren hedoïetaraino;
Ordean iragan
Naiceneco,
Nihor ez cen han
Guehiago,
Içan cen ere
Ez cen seinale batere.

8.

Cembat Alexandrec,
Cembat bertce Cesarec

Bere harmen indarrez
Bere garhaili ederrez,
Ez dute leyhorra
Mintçaraci,
Itsasoa bera
Emaraci?
Eta Askeneco
Harrac dituzte ondoco.

9.

Guçon jakintsunac,
Eta escolatuenac
Cer du bada probetchu
Duelacotz izpiritu?
Ez bada justuen
Sinhestea,
Eta sainduen
Berthutea,
Deusic ez çajo
Cerucotz balliatuco.

10.

Guçonen çorthea,
Eta hekien ephea,
Jaunac bakharric ditu
Bere escutan guelditu:
Berac du ozpina
Bitz-arazten,
Eta guçona
Du herrausten,
Har bat beçala,
Guti gogoan duela.

11.

Ez du ez pobrerie,
Ez aitoren-semeric,
Herioac berezten,
Urricariz guphidetsten
Bethicotz lurrera
Jautsi behar

Haren baltsara
Gaurtic bihar,
Dire guciac
Chumeac eta handiac.

12.

Ez du beraz ceren
Gazteac gorphutçaren
Hari mainaz ekhartcen,
Eta ederki aphahtcen :
Noiz ere baidoha
Ilkhitcera,
Atseguin bilha
Mundu pera,

Duke bethea
Bere egunen ephea.

13.

Gure funts-gabea,
Gure dohacabea!
Uste badugu içan
Dohatsu behere huntan
Cerulean da batcen
Çoriona,
Deusec gutitcen
Ez duena,
Jainco bat deino,
Bethi içanen dena oso.

ANDREDENA MAGDALENA

ETA MUNDUTARRAREN ARTECO SOLHASA.

Aire Itçaucea.

1.

CEREN bilha çabiltça;
Andre Magdalena,
Cerc hola çaramatça
Desertuan barna.

2.

Jauna galduz gueroztic
Ez dut placerican;
Gauça guciac ditut
Higuin mundu huntan.

3.

Cer traçatacoa da
Çuc dioçun Jauna?
Indaçu cembait marca,
Ene Andre ona.

4.

Hura da churi-gorri
Aita-amen bakhoitça,
Jainco-guicõn eguina,
Eta ene bihotça.

5.

Gurutçeficaturic,
Ez duçu aditu,
Juduec nola çuten
Sepulturan sarthu?

6.

Neronec ikhussi dut
Amaren aldean.
Ene gatican hila
Gurutce batean.

7.

Cer esperança duçu
Beraz haren ganic,
Infame baten guisa
Hil denaz gueroztic?

8.

Oi ene Jaungoicoa;
Ceru lurren Jauna.
Mundua guarda çaqu,
Ez naçan engana.

9.

Oi! Andre Magdalena;
Ez çaitela trompa
Oraino har eçaqu
Leheneco pompa.

10.

Hire pompa liçunac
Sobra seguituric,
Ongui niagoc orai
Urrikiz betheric.

11.

Gurutceco penetan
Gambiatcen nauçu,
Ene placerac hola
Mezpreçatcen tulçu?

12.

Gurutcean tut orai
Ene atseguinac,
Jaunac hartuz gueroztic
Han ni galic penac.

13.

Utzçaqu gurutcea,
Çato enekien,
Desertuan ez duçu
Jauna causituren.

14.

Nigar eguinen diat
Hic eraguin faltaz,
Menturaz causituren
Jauna bide huntaz.

15.

Ceruetara guan cen,
Etçare orhoitcen!
Aitaren escuinetic
Ez da apartatcen.

16.

Cein haicen gueçurtia
Hor duc eracusten;
Orai huen infame
Bat cela erraiten.

17.

Nigarrac behar dira
Badakit horrentçat,
Ordean askico da
Hiltcean ihintz bat.

18.

Dembora sopra diat
Hirekien galtcen;
Baniohac bortura;
Ez duc mintça ceren.

19.

Oi! Andre Magdalena,
Hitz bat adičaqu,
Bakbarric ezbaçohaz,
Ni galduco nauçu.

20.

Adios seculacotz
Mundu gueçurtia,
Nitan aguertuco duc
Hire tromperia.

21.

Non çarete bortuco
Ihici tristeac,
Çatozte ene gana,
Dolorez betheac.

22.

Presta datçue fite,

Oi! çuen nigarrac,
Garbi detçadan ongui
Eguin tudan faltac.

23.

Çu ene churi-gorri,
Aita-amen bakhoitça,
Çu ikhus arteraino,
Hemen dut egoitça.

BATHAJOCO ABANTAILAC

ETA AGUINTÇAC.

Aire hunen gainean : *Oi! cer onquiren.*

1.

ALTCHA goacen Batajoco
Ihurri sacatura;
Christau eguin guineneco
Botuen berritcera.
Arnegatcen dut,
Bihotcez dut
Satanez behin-bethicotz uk-
hatcen
Cerua, lurralekhuco hartcen.

2.

Sorceac ekharri çautan
Arrastaren hausteco,
Jaunaren leguea eman
Citçaitan betheteco
Arnegatcen dut.....

3.

Ardiesteco bicia
Bermez nauçun hitz-eman,

Nuela legue gucia
Idukico demboran.
Arnegatcen dut.....

4.

Botu haukien ondoan;
Apheça cen alchatu,
Ene ganie laster çohan,
Satan çuen manatu,
Arnegatcen dut.....

5.

Gurutcearen seinalez
Çautaten irakhatsi,
Behar nuela gurutcez
Cerua ardietsi.
Arnegatcen dut.....

6.

Gatzaç çautan seinalatu
Berthuteco jaidura

Nic ordean besarcatu
Debruaren bandera.
Arnegatcen dut.....

7.

Templu sainduan sartcera
Ninduten guero utzi,
Oçarren çori-gaitz bera (*)
Nuen arren mereci.
Arnegatcen dut.....

8.

Eliça bethean nintcen
Etsai eguin Satanen,
Ordean ene aguintcen
Bethi hari naiz hausten.
Arnegatcen dut.....

9.

Ez behin, bai hiruretan
Çaitanean galdetu,
Arnegatcen bada dudan,
Bai-etx dut eguin oihu.
Arnegatcen dut.....

10.

Trinitatea goraki
Nuen guciz aithortu,
Cembat moldez agueriki,
Ez dut guero ukhatu?
Arnegatcen dut.....

11.

Bathajatu aiticinean
Satan cen ene nausi,
Ura icusi çuenean,

(*) Apocal, 22.

Laster cen goan ibesi.
Arnegatcen dut.....

12.

Ur saindu harc khendu
daut
Aita-Adamen hobena;
Chriamac berehala eman
Guiristino icena.
Arnegatcen dut.....

13.

Soin churia nuen jauntzi,
Ceren nuen etsaia,
Bere armaçoinaz billuzi,
Eremanic garhaia.
Arnegatcen dut.....

14.

Ezco bistuac çarolan
Fedea seinalatu,
Ceinac gure obra onetan
Bicia behar baitu.
Arnegatcen dut.....

15.

Trinitate saindua cen
Nitaz guciz hartua,
Ene arima hain baicen
Eder, berreguindua.
Arnegatcen dut.....

16.

Aitac bere haur maitetçat.
Bertceticaric hautatu;
Semeac primu laguntçat

Ninduen aldaratu.
Arnegatcen dut.....

17.

Bere egoitça çuen hartu
Nitan Izpirituac:
Halaber ciren bekhaiztu
Ordutic ifernuac.
Arnegatcen dut.....

18.

Alfer Satan errabian,
Bere arte galcorrez,
Dabila ene inguruan,
Ni atceman beharrez.
Arnegatcen dut....

19.

Bekhaitz ene ongui içanaz,
Galdu nahi ninduke:
Bainan Jesusen icenaz,
Garhai içan naiteke.
Arnegatcen dut.....

20.

Munduac bere pompekin,
Ez nau lilluratuco,
Haraguiac placerekin,
Ez nau, ez beretuco.
Arnegatcen dut,
Bihotcez dut,
Satanez behin bethicotz uk-
hatcen
Cerua, lurralekhuco hartcen.

COMMUNIONECO ACTA.

Aire Itçautcea.

1.

HUNA Jesu bildots amultsua,
Gure gatic Sacrificatu dena,
Bekhatutan baçare Christaba.
Goardia ungui ez hurbil hunengana.

2.

Jauna çure errecibitceco,
Behinere ez naiz digne içatu,
Bainan ene ongui sendatceco,
Çure hitz bat askicoda, erraçü.

3.

Erran duçu janhari çarela,
Çure gana Jesus ona naiz heldu,

Badakiçu menturatçen naicela;
Ceren nauçun ceronec gombidatu.

4.

Aldarean dago Jesus ona,
Oguiaren iduriz goibelduric,
Beguiz ikhus ez deçakedana,
Maitatçen dut hordela sinhetsiric.

5.

Orai Jesus ene bihotcerat,
Ethoriçait, hauda besta handia,
Jaunaç bere gorphutça jaterat,
Emandio muthilari gücia.

6.


Ah! cer esker bihurturen dautçut?
Cembat Maite nauçun hemendaagueri,
Ordainez nic Maitaturen çaitut
Mundu huntan bici naiceno bethi.

7.

Jesus ona, cer galdetçen duçu,
Hemen naiz prest çure obeditera,
Bihotça çuc ikhusten dautaçü,
Portchaçaçu çure cerbitçacera.

8.

Ez naiz Jauna çu gabe deus ere,
Haraguiac bethi nau bentçutuco,
Ene baitan beraz bethiere,
Egon çaitte ene sustengatceco.



GAZTE-DANIC PRESTU IÇAITEAREN GAINEAN.

Aire : *Hanitcen gainean.*

1.

CHIRSTAU gazte maitea, çuretçat naiz mintço,
 Adi çaçu gogotic cembeit solhas goço :
 Ceruraco bidea çaitçu iracasten;
 Eman çaitte gogotic çu haren ikhasten.

2.

Goiz danic behar duçu maithatu Jaincoa
 Nahi baduçu içan bethico goçoa.
 Gazte gaichtoac dire guehienac galcen.
 Aldiz gazte prestuac ceruaz goçatcen.

3.

Dembora eguilea bide da Jaincoa,
 Adin gucien ere Jabe-eguiazcoa :
 Hala gare harenac gaztetasunean
 Nola ecindu eta çabar garenean.

4.

Hortic badacusagu gure eguinbidea,
 Iduki behar dugun bicitce moldea :
 Jaincoa behar dugu oroc cerbitçatu,
 Haren legue saindua bethi beguiratu.

5.

Nola bada, gaztea, haiz orrebelatcen,
 Jaunaren cerbitçutic cerc hau aldaratcen?
 Debrua duc hautatcen nausitçat, çoroa,
 Ahantziric hire jabe çuçenbidezcoa!

6.

Eçagut-eçac ongui hire esker gaichtoa
 Cein minki damuzlatecen duçan Jaun-gaincoa :

Haren emaitça berez hi haitz baliatcen.
 Hari guerla eguile batçuen laguntcen.

7.

Biciaren lorea da gaztetasuna,
 Adin gucietan den precatcecoena :
 Gaizkira makhur bedi, ez daki non bara;
 Onguira itçul bedi, ah! cein den suharra!

8.

Gazteac dire çalhu, bici, eta khartsu;
 Çaharrac berric gogor, uzcur, nagui, pisu.
 Hec uda didurite bere egun lucetan;
 Hauc aldiz negu latça izotz hormatetan.

9.

Etsaiarentçat bada içanen othe duc
 Hire adin hautua, gaztea, erraguc?
 Jaincoarentçat daucac, ah, bihotz gogorra!
 Bekhatutan iragan egunen hondarra.

10.

Caïnen çorigaitça duc bada ahantci,
 Cikhoitztasunac nola çuen galaraci?
 Lurrac eman ontassun picainac gorderic,
 Jaunarentçat bereci cian tcharretaric.

11.

O çu gazte çuburra, Abeli çaraizco,
 Jaunaren arraicien çure-ganatceco;
 Hare beçala emotcu bildox gucienenac,
 Çure bicico egun diren ederrenac.

12.

Behin badu itsutcen mundu coratuac;
 Gogorki amarratcen jaidura galduac,
 Garrazki pagatucu ditu atseguinac,
 Hec hartuco dituen gazte çoro-arinac.

13.

Cer gudu, cer borroca, cer guerla gogorra,
 Funtski uteico bada aztura çaharra!

Bicitcez aldatceac ecina diduri,
Estira behar çayo eman bihotçari.

14.

Mairu beltça nekhez da churi bilhacateen;
Gaizkian ohitua hain gaitz da cençatcen.
Gaztea hari bedi, Jauna baita mintço,
Ohitça gaichtoari beguira bioço.

15.

Usantça, ah! garhaitcen balute, bortchatuz;
Gudu eta borrocaz, azcarki bermatuz!
Osoki baletçate utz bere gaizkiac,
Jaunac ahantz letçake iragan guciac.

16.

Bainan ez bekhatutic ez dire hastantcen;
Ondoan guehienac hartan bai fincatcen.
Hassi beçala dute osatcen bicia.
Dohacabe hec galtcen bethico loria.

17.

Miracuiluz bicia nahi badu aldatu;
Cembat campoco traba, cembat nekhe gudu?
Ussantçaren gatheac ecin phorroscatuz,
Jaidurà nausituac bethi muthirituz.

18.

Bekhatoreac noizbait haux betça gatheac,
Halere haren grinac ez dire chumeac;
Ecin jakin deçake eya bekhatuac
Jaunaren aitçinean çaiçcon barkhatuac.

19.

Oi cer erhokeria, ikhusac, gaztea,
Cembeit urthe bakharrez atseguin hartcea!
Bertce egunac bada nahi tuc iragan
Bihotz herstura, eta nigar, aubenetan.

20.

Bainan prestutasunac, Jauna maitatceac,
Bere arima bethi garbi-idukitceac,

Eguiten die Christaua, bake-eguiazcoa
Munduco atseguinac ez beçalacoa.

21.

Gazteric Jaincoari çayoena lotcen
Haren bihotz samurrà du bereganatcen :
Adin lerracor hartan ceren beita prestu,
Jaunaren atseguinac hartaz eguiten tu.

22.

Hala ceruco dohain berez-berheciac
Gazte preztuarentçat ditezke guciac :
Haren urthen lorea Jaincoac içan du,
Aldiz Jainco beçala saristatuco du.

23.

Mundu guciac ere choil da onhetsia,
Gaichtaguin burlariez maiz ederretsia ;
Bere ariman dute guciec preçatcen,
Bai eta guebienec handizki alchatcen.

24.

Bician badukegu hainitz ikhusteco ;
Ondico, nahigabe frango jasaiteco ;
Arin ditu prestuac guciac aurkhitcen,
Ceren Jaun onac baidu handizki lagunteen.

25.

Hilcea çaya gogor gazte galduari ;
Aitcitic goço, ezti, prestua denari :
Iragan biciae du hura ikharatcen,
Grina gabe prestua bakean da hiltcen.

26.

Gaztea, ibil hadi oraitic prestuki,
Mugaric ezdenean ezducan urriki ;
Urrun lagun airatu mundutarretaric,
Nahi ez baduc hartu hekien cutsuric.

27.

Onhex eçac etchea, bicltce gordea ;
Ichiltassuna, lana, hire eguinbidea :

Harraico othoitçari, iracurtceari,
Iracurriac gogoan erabiltceari.

28.

Sacramenduetara, hurbilduz arthoski,
Hire chede onetan egonen haiz tinki:
Hetan çaizkie emanen dohain berheciac,
Errechki garhaitceco hire-etsai guciac.

29.

Bekhatua delacotz gaitz gucién gaitça,
Harentçat ican-eçac biguintcen biguintça:
Hartariç bethiere beguirauc arthoski,
Bici haiceno, hortan berma hadi tinki.

30.

Çuc, ô Jesus maitea, gure jabe ona,
Jende gazte prestuac hain maite tutçuna,
Eguiazco prestuac bethi çatçu lagun,
Bere chede onetariç ezdaitecen urrun.

31.

Gazte errebelac ere tutçu urricari,
Hekientçat-ere duçu odola ichuri,
Suntsi-etçatçu, Jauna, hekien ilhumbeac.
Bai phorrosca lothuac dauzcaten gatheac.

JUYAMENDU GENERALAZ.

Aire hunen gainean : *Foudres, éclairs.*

1.

ADITCEN da trompeta latzgarria,
Ethorri da Jaunaren eguna,
Egun triste, egun loxagarria,
Bai egun gucién handiena.

2.

Ithortçiri eta chimista pean
Lehenago Jauna mintçatu cen;

Bainan egun bere majestatean
Handiago gucier aguertcen.

3.

Aspaldi lur bihurtu haraguiac,
Erhauxtuac ciren heçurretan,
Ossaturic instant batez guciac
Bizten dire guciac batean.

4.

Aingueru onec ematen tuzte
Merecitu duten eredura
Gaichtaguinac eta onac bi parte
Jesus Christoren bi aldetara.

5.

Hobendunac ezkerreco aldetic
Ikhusten du Juye hassarrea
Eta onac Jaunaren escuinetic
Bake ossoaren beithartea.

6.

Errabian ahalkez estaliac
Gaichtaguinac marrasketan daude
Non çarete lurrac, eta mendiac?
Othoi hemen sunxi gaitçatçue.

7.

Ifernuac errayac idekiric,
Dloçote, irex baguinitça;
Bainan egun Jaunaren beguietaric
Ez diteke, ah! nihor gueriça.

8.

Orduraino gordeac egon diren
Crima beltçac eta itxussiac
Aguertcen tu gucién bistan hemen,
O Jesus! çure argui biciac.

9.

Ilhumbetan, bakharric secretuan
Eguin crimac han aguertcen diren

Bihotcean, eta izpirituán
Eguin icatu direnac ere.

10.

Bicloac berthutearen capaz
Estalirie munduaren bistan
Enganatu gaituzten hipocritac
Emanen dire orduan arguitan.

11.

Gaichtaguinac bere crimen laidoa
Hain handia edireten badu,
Emanen den arrasta bethicoa
Ah! nola beharco du aditu?

12.

Çoazkidate, ah madaricatuac!
Çoazkidate urrun ene ganic,
Seculaco surat condenatuac
Çoazte erretcerat orai danic.

13.

Berthutea calomniaz belztua
Orduraino egon balimbada,
Egun hartan ohorez gainditua
Goraki laudatua icanen da.

14.

Egarriac, gosseac, bilhuciac
Mundu huntan ibili direnac,
Egun hartan espos soinez jaunteiac
Sassiatuco ditu jaun onac.

15.

Itçultcen da escuineco alderat
Arraituric Jaunaren bissaya
Ichurtcen du justuen bihotcerat
Oi! cer bozcariozco hibaya.

16.

O! cer goço aditcean : çatozte
Ene aitaz benedicaltuac,

Har çaque ene glorian pharte :
Han dire çuen khoro tronuaç.

17.

Instantean cerua da çabaltcen
Ta justuac arima, eta gorphutz,
Bozcarioz gaindi dire alchatcen
Içaiteco han bethicotz urus.

18.

Oi! egun segur beçain latzgarria!
Cein aldetan ikhussi behar nauc?
Bekhatoros hain lastimagarria
Ikhusgarri hortaz hiri çauc!

BEKHATOREAREN ÇORTHEAZ.

Aire hunen gainean : *Depuis long-temps Dieu t'appelle.*

1.

Oi! cein den çorthe tritea
Bekhatorea,
Oi! cein den çorte tritea,
Phensaçac maiz
Bekhatuan bicitcea,
Salbatu nahi bahaiz.

2.

Jaun goicoaz gaitzetsia
Haren exaya,
Jaun goicoaz gaitzetsia
Erreboltan,
Deramac hire bicia
Tristeki mundu huntan.

3.

Sosseguz gabetua
Assaldatua,
Sosseguz gabetua
Haiz aurkhiten,

Gathibo bilhacatua,
Cer estatutan haicen!

4.

Hire goçokerietan,
Axeguintan,
Hire goçokerietan
Bihotcerat
Heldu çaic bethi belbetan
Cerbait assaldatcerat.

5.

Herioaz orhoitcean,
Guti usteian,
Herioaz orhoitcean
Cer latztura!
Ez da hire bihotcean
Hobenen erredura!

6.

Ez balitz deus beldurtceco
Berce munduco,

Ez balitz deus beldurtceco :
 Bainan aurdikico
 Surat ditic Jaunac
 Criman biltcen direnac.

7.

Phensaçac, dohacabea,
 Hire ephea
 Phensaçac, dohacabea,
 Hurbil dela:
 Luçaro bici ustea
 Egun hil ditekela.

8.

Bethi guerorat uztea;
 Conbertitcea,
 Bethi guerorat uztea;
 Duc ondicotz;
 Norbeit salbatu gogoa
 Galcea seculacotz.

9.

Huc ez biharamunic
 Seguraturic
 Has hadi has egun danic.
 Gambiatcen,

Bekhatua kitaturic
 Barkhamendu galdetcen.

10.

Salbatçaile amulsuac
 Hire Jaincoac,
 Salbatçaile amulsuac
 Hau bilhatcen;
 Egun darozkie besoac
 Hain maiteki bedatcen.

11.

Haren ontassun handiaz
 Haren graciaz,
 Ez bahaiz egun lehiaz
 Baliatcen,
 Laster bere justiciaz
 Hassico duc obratcen.

12.

Bihotz humiliatuac
 Doluz çaurthuac.
 Salbatçaile amulsuac
 Onhestentic;
 Eta hekin bekhatuac
 Ahanzten barkhaturic.

HIL BEHAR NAIZ,

ETA JUYATUA IÇAN.

Aire hunen gainean : Çure heriotceaz orhoit bacinete.

1.

BEKHATU gachtoari ihes eguiteco,
 Bideçeihar gucien bethicotz uzteco,
 Gogoa har detçagun gure azken finac :
 Hala guanen çaiçkigu gaizkiraco minac.

2.

Arrogatcerat nola ichilic etchetan
 Sarcen dire ohoinac aberatsenetan,
 Herioac halache gaitu atcemanen,
 Bai bicien artetic helas! eramanen.

3.

Lurrez eguin gorphutz hauc, gathagot barnean
 Bizcarretan harturic andetan airetan,
 Orduan gaunentic lurperat deithoraz,
 Daudela minduruac nigar heyagoraz.

4.

Har chichari nabarben gossez hiratuac,
 Gure haragui heçur haukien nabituae,
 Han ciaudec çuphuan gure iresteco,
 Gucietaric colpez gaitic hassico.

5.

Suyet, erregue, prince, chume, handientçat
 Horra cer dagon thumban gure gorphutcençat.
 Gorphutcen hil ondoco aiphamen horiec
 Latzturican aditcen tutçue guciec.

6.

Thumbacoez bertceric ez balitz guretçat,
 Achola guti nuke nic segur behinçat,
 Tribunal bat badugu mundutic lekhora
 Han hobendun bagare, oi cer heyagora!

7.

Jesus Christoc daucu han contu galdetuco;
 Gauça guciac ditu chuchen phisatuco:
 Hitcez obraz beçala çuec, gachtaguinac,
 Aurkhituco tutçue han gogoz eguinac.

8.

Falta mortal bakhar bat, ô bekhatorea!
 Hire condenatecco atçarcac fedea,
 Askico dukec, helas! milaca eguiten
 Dituc hic, eta ez haiz batere lotsatcen.

9.

Lokhuma triste hortan belhi ehortcia
Bahago, hire contra, oi cer sentencía!
Heriotcean Jesus coleran yarriac
Emanen dauian! adi, çabal beharriac.

10.

Aparta ene ganie desobeditu nauc,
Arima criminela, harskie ongui hitz hauc:
Oha seculacotçat ifernu çolarat,
Demonioençat biztu su lama hetarat.

11.

Iharrossiac Jauna sentencía hortaz
Galdetcen darotçugu duçun arren gutaz
Urricalmendu handi, berçenaz akhabo,
Ifernuan guintezke bethicotz gathibo.

12.

Punituco ditugu hemen gogo onez
Gure buru propiac ditugun hobenez.
Penitencia Jauna! Ah! hel çakizkigu,
Çure odola, othoi, balia bekigu.

13.

Bekhatuac borratu dituzkedanean,
Deit gaitçakeçu guero nahi duçunean,
Çure tribunalera, handic alçatceco
Çurekin cerurat çutaz goçatceco.

DAMNATUEN

AUHENAC IFERNUAN.

Aire hunen gainean : *Helas egun batez.*

1.

NIGAR marrasketan
Arima damnatuac,
Lece eternaletan
Bethicotz hondatuac

Daude, aditçagun :
Hekien boz sarçorrac
Ongui har detçagun
Hekin errecurac.

2.

Jaunaren colerac
Azpian gaitu hartu,
Lurreco demborac
Guintian emplegatu
Bide galduetan;
Orai gaituc hemen
Ah cori gaicetan!
Bictima su lamén.

3.

Bai hemen kharpean,
Cerurat guintezkenac
Ah! tormentapean,
Dohacabe garenac,
Gaude, eta hula.
Menderen mendetan;
Egonen garela
Jakín nigar hautan.

4.

Cer ondore duten
Gure banitateec!
Certarat gaituzten
Gure libertateec!
Axeguin cikhinac,
Laket citçaizkigun
Su lama saminac
Orai iretz-çagun.

5.

Oihuz çagozkigun
Çure predicariac,
Ah! ceren ditugun
Tapatu beharriac,
Çure justiciac,
Jauna lece huntan;
Gauzca eçarriac
Bethico penetan.

6.

Çure contra guinen
Mundutar lagunekin
Tropaca alchatcen
Oi cer furiarekin!
Hox mendeca çaité,
Bai justu da, Jauna;
Guretçat ez daite
Hemen sopra pena.

7.

Ez ikhusten dugu
Çure ozpin guciac
Mereci ditugu,
Oi nola çuc haciac!
Eskergabe belçac
Çutaz trufaturic,
Iduki bihotçac
Tugu lohituric.

8.

Madaricaturic
Sacramendu handia
Ezconçan harturic.
Guindaucuten bicia
Eman burassoec;
Oi bada! certarat
Çuen bicioac
Gaitu su hautarat!

9.

Hunela galcecotz,
Oi çuec aita amac,
Hunat egorcecotz
Helas! gure arimac,
Certaco ban harat
Bathayo saíndutic,
Ez egor thumbarat
Bicien artetic.

10.

Hic ni galdu nauc hic,
Mundutar bolatua,
Jannac beharco dic
Doblatsu ifernua,
Hire punitceco
Eman escandalez
Hiri yaçartceco
Bere ahal doblez.

11.

Hemendic mundurat
Ahal baguin dohazke!
Bicien balsarat
Ah! cer ez guindeçake
Cer! eta belharrez,
Bai bici orduan
Guintezke beldurrez.

12.

Hox bada, Christauac,
Hemen ikhusaçue,
Egunekin gauac
Han nahi ditutçue
Urtheac mendekin,
Deithora min hautan,
Reprobatuekin
Eraman lecetan?

13.

Çuri dauzkitçugu
Behar eskerrac eman,
Çuri çor dautçugu,
Jauna, ez baicare han,
Ifernucoekin
Nigar marrasketan,
Balsatuac hekin
Hekien penetan.

14.

Orai hemen, Jauna;
Misericordioski,
Ah! gorphutz hau huna
Nahi beçain garratzki
Acurriatuac,
Munduan gareno
Toleya gaitçatçu
Heriotceraino.

15.

Nigar aubenetan
Gure hoben handiac,
Egun saindu hautan
Borraturic guciac,
Guero handie goiti,
Egonen aguian
Ah! guintezke bethi
Bai çure gracian.

DOHAXUEN CERUCO GOÇOAZ.

Aire hunen gainean : *Bicio bat orotarar.*

1.

JAUNAC gauzca mundu hun-
tan
Hemendican Cerurat,
Bereganat harcecotan
Dohaxuen balsarat;
Alchatçagun arren boçac

Canta errepiketan
Bocekin junta bihotçac
Ceruraco hotsetan.

2.

Bekhoz bekho çaitugula
Hurranic ikhussico,
Çu baithan ez dauçuçula

Deus ere estalico,
Jainco handia miletan
Darocuçu aguintcen
Bethi çure aguintcetan
Çare chuchen aurkhiten.

3.

Gure ilhumbe lodiac
Dire hor suntsituco,
Çuc aguertu bekhokiac
Gaitu hor arguituco.
Argui suerte guciac
Eguia guciekin
Ditezke gure arguiac
Çu ikhustearakin.

4.

Ah! guiconc balakite
Cer çorion guretçat!
Daucaçun hor, ez litezke
Hain flotç creaturentçat;
Hemengo plazer laburrac
Khirax litçaixcokete.
Desira ossoen kharrac
Horrocotz lituzkete.

5.

Goço suerte guciac,
Golkotican golkorat
Jaungoicoac ichuriac
Dohaxuen baitharat,
Behin ere huts arteric
Hibayaz çurrutaca,
Ez etare gutitceric
Han dohaz uholdezca.

6.

Cer ikhussi du beguiac
Egundaino munduan,
Cer aditu beharriac
Çabaldu den orduan,
Asma ez daite deusican
Orai hemen lurrean

Ez emandaitekennican
Hango onen aldean.

7.

Çu çare gure egoitça
Ecin asmatuzcoa
Jannaren azken emaitça
Bethi goçatcecoa
Gorphutz mortal hau utciric
Arima hauc hor gora
Dohacenean garbiric
Lur huntaric ochala!

8.

Gutaric bakotcharentçat
Koroa, tronu bana
Berthutearen saritçat
Ah! hor daucaçu, Jauna.
Khoru, tronu distiantac
Çuen ardiesteco
Fedezco moyan puchantac
Tugo bethi hartuco.

9.

Lur huntaric alchaturic
Çure bessu eztiez
Güero çuc khoroaturic
Çure escu garbiez
Noiz Jauna gure buruec
Tronu gain horietan
Deitezken çutaz hartuac
Gaude maiz suspiretan.

10.

Lurrean hemen ditugu
On gaitçac nahasteca;
Gauça guciac çaiçkigu
Guerthaçen aldarteca;
Nahazte ez mudançaric
Ceruan behinere:
Bai on guciac bilduric
Han tuzte bethiere.

11.

Orai beraz non gabilça
 Sassiatsu beharrez
 Lurrean gure bihotça
 Placer galcor ederrez,
 Ceruan daude guretçat
 Atseguin bethicoac;
 Hox bada! beithez hekinçac
 Gure nahi ossoac.

12.

Cerurat nahi badugu
 Ah! guriki biciric,
 Exi ahal deçakegu,
 Han ez da halacoric.
 Bici saindu, penitenta
 Eramaten dutenac,
 Deitezke, Jainco puchanta,
 Hor hartuco tutçunac.

13.

Itxaspean dabilteçanec
 Desiratcen portua,
 Desterratuac daudenec

Bere sayo lekhoa :
 Itxasso tempestatsua
 Egoitça hau guretçat;
 Desterru ondicozcoa
 Christau fededunençat.

14.

Oh! çuec çuen demboran
 Gu gaudecen beçala
 Cin dauztenac heyagoran
 Dohaxuac, ochala!
 Ah! gu ere Jaunac horrat,
 Egunac treinaturic
 Deith gueitçan çuen balsarat,
 Desterru min huntaric.

15.

Cembat misterio handi
 Obraturic munduan,
 Amodioz bethi gaindi
 Çauden orai ceruan!
 Salbatçaile amulsua,
 Ah! çuc badaikeguçu,
 Bai, çure urricalsua,
 Çure gana gaitçalçu.

MUNDUCO LANYERAC,

JESUS LAGUN.

Bere airea.

1.

ITXASSOAREN pareco
 Mundu hau salbamenduco,
 Chume handiac
 Garen guciac
 Etsayarekin guduca
 Hari belduric borroca.

2.

Unciac tempestac nola
 Satanec arimac hala

Ditu tentatcen,
 Ditu beharcen,
 Nahiz ikhussi galduac.
 Cerurat gure oihuac.

3.

Norc ikhussi hulacoric
 Etsai nabarben gachtoric;
 Nihoiz bakeric,
 Nihoiz pausuric,
 Bethi beharcen gaituzte:
 Çato Jesus, alcha çalte.

4.

Hel, Jesus, hel çakizkigu
 Çure beharra badugu.
 Hau da çoria,
 Oi cer furia!
 Galceco traçac ditugu
 Hel, Jesus, hel çakizkigu.

5.

Ez çaitetzela ez loxa
 Ene ganat çuen boça;
 Çuen nigarrac,
 Oihu suharrac
 Aditcen ditut cerutic
 Arren beira loxatcetic.

6.

Nic ichurri sarraskiac
 Ene laguntcen bahiac,
 Haragui, mundu,
 Satan, ifernu
 Gucien dire garayac,
 Sarraski nic ichuriac.

7.

Sinhex açue eguia
 Ene ahotic ilkhia
 Ukho belduric
 Ez har nitaric
 Ez banauçue ukhatcen:
 Sinhesten dugu sinhesten.

8.

Egon çaitetzte enekin
 Nagon ni ere çuekin,
 Enekin juntki
 Dagona finki
 Deite goçoki hacia,
 Ceruracotz berecia.

9.

Ceru lurreco goçoac
 Ez berdin goçatcecoac,
 Hauc cein galcorrac,
 Hec irauncorrac,
 Orai cer dio gogoac,
 Hauta, hauta cerucoac.

10.

Tratantec aberasteco,
 Guerlariec bençutceco,
 Laceriari,
 Herioari
 Desafioac ematen;
 Hox christauac erna gaiten.

11.

Ossoki dire handiac
 Guretçat dauden sariac,
 Daude hautaric
 Atharaturic,
 Ceruco goço guciac
 Jesus onac mereciac.

12.

Guduca beraz, guduca,
 Herioraino guduca
 Balentriosen,
 Bitoriosen
 Prest-presta dauzca khoroc
 Jaungoico soberanoac.

13.

Mihia aho gangari
 Jossia hecur gainari
 Gueldi bethicotz
 Çu ahanztecotz!
 Goico Jaunaren egoitça.
 Çutan da ene bihotça.

BEKHATOREA ITÇULTÇEN DA JAINCOA GANAT.

Aire hunen gainean : *Orhoit hadi bekhatorea.*

1.

Ah! mundu enganagarria
Jakin banerauc berria!
Hire aguinça falsoac
Cein diren ondicozcoac;
Ah! orai diat ikhusten,
Ikhusteaz nauc hirateen.

2.

Hire laussengu ederrez,
Hire atseguin galcorrez,
Oi hau da bada lastima,
Certara dudan arima!
Huna non dudan galdua,
Bekhatutan hondatua.

3.

Nor darotçudan preçatu
Nor dudan nausitçat hartu!
Ukho eguincan çuri,
Oi, Jauna cer ikhusgarri!
Ene çorigaitz handietan
Nago Satanen gathetan.

4.

Hain churi nola elhurra,
Hain eder nola içarra
Nuen arima gachoa.
Helas hau da gambioa,
Khelderra baino belçago
Bakhatuac eguina nago.

5.

Ceruan guehiagoric
Enetçat ez da çucenic,
Non ez ditudan biguincen,
Hoben guciac borratcen,
Penitencia eguinez
Heyagoretan nigarrez.

6.

Alkhi sainduco oihuez,
Predicarien erranez
Çu ganat, Jauna, deithua,
Amulsuki herchatua,
Heda bessoa cerutic,
Heldu natçaitçu gogotic.

7.

Ni naicen beçalacoric
Nore ikhussi prodigoric?
Harc primança larrecoa,
Nic primança cerucoa.
Biec ditugu çahutu,
Cembatez dudan garhaitu!

8.

Ah! prodigoa beharrez
Hurren hila cen gossetez:
Ordu onean etcherat,
Aitaren besoetarat,
Itçuli baitçen subarki,
Aitac hartu cein arraiki.

9.

Nore egundaino bestarie
Ikhussi hunelacoric!
Bessoz bessu bessarketan.
Egonican nigarretan
Aita Semea aldean
Emana mahain onean.

10.

Animo, bekhatoreac,
Ceruco Aita gureac.
Ossoki combertituric,
Bekhatuac barkhaturic
Gaitu haur maiten balsarat
Hartuco bere alderat.

PREDICU AITCINEAN.

Aire hunen gainean : *Je viens à vous.*

1.

HEDA, Jauna, heda çure arguiac,
Çuc arguituz har delçagun eguiac,
Guiçon lagun egorcen daucutçunac.
Argui nola gaitçake gu guiçonac?

2.

Arren beraz çatçu susta guri
Egun huntan tugunac predicari;
Berac çure su lamez gorrituac,
Utz gaitçaten gu ere sustatuac.

3.

Bera, guri, hauts, erdira çatçu,
Behar ossoa cerorrec badakiçu,
Cembat bihotz harriric gogorrenac
Baino diren gogorrigo eguinac.

FINA.

PREDICU AITCINEAN.

Aitcinean gairman : Je n'ens & come.

1.
Aitcinean gairman, beda cure armanic.
Que arguunt par delcagan armanic.
Enlon lakun egeren dancicunac.
Aitcinean gairman en egerenac.

2.
Aitcinean gairman gairman gairman
Egeren gairman gairman gairman
Aitcinean gairman gairman gairman
Egeren gairman gairman gairman

3.
Aitcinean gairman gairman gairman
Egeren gairman gairman gairman
Aitcinean gairman gairman gairman
Egeren gairman gairman gairman

FINA